



III. ERANSKINA  
DIRU-SARRERA ESKAERA

TOKIKO EKINTZAILETZA-PROIEKTUEN EREMUAN ENPRESA-IDEIA BERRIEN SUSTATZAILEAK  
EUSKARRITZEKO LAGUNTZEN DEIALDIA

Lurralde-eremua

I.- Eskatzailearen identifikazio-datuak

Izen-abizenak		NANa	
Helbidea		Udalerrria	
Probintzia		Posta-kodea	
Tel.		E-maila	

II.- Erakunde laguntzailearen identifikazio-datuak

Erakunde laguntzailearen izena					
Titular juridikoa				IFK/IFZa	
Erakundearen egoitza		Tel.		Faxa	
Udalerrria		Probintzia		E-maila	

III.- Eskatzaileak bete beharreko baldintzak

- EAEn bizi izatea.
  - Langabea izatea eta Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzuan enplegu-eskatzaile gisa izena emanda egotea.
  - Ekonomia-jardueren gaineko zergan eta langile autonomoen araubide berezian lehendik alta eman gabea izatea.
  - Edozein jarduera-arlotan enpresa- edo negozio-proiektu bat garatzeko ideia bat izatea.
  - Lanbidek baimendutako erakunde laguntzaile batek ekintzaitzari aholkularitza eta laguntza emateko sustatutako tokiko prozesu baten barruan egotea.
- Markatu X batez dagokiona

#### IV.- Eskatzaileak bere gain hartzen dituen konpromisoak

- Arduraldi eskusiboa enpresa-idea garatzeko eta egituratzeko zereginetan jarduteko.
- Deialdi honen kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileek enpresa-idea sortzeko eta garatzeko antolatutako aholkularitza- eta laguntza-jarduera guztietara joatea.

#### V.- Eskatzailearen adierazpen erantzulea

- Helburu eta xede bererako edozein administrazio publikok emandako laguntzarik ez duela jasotzen.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrek edo haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko diru-laguntza edo laguntzaren baten ondorioz hasitako itzultze- edo zehapen-prozeduraren batean ez dagoela.
- Diru-laguntzak edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzea dakarren zehapen penalik edo administrazio-zehapenik ez duela izan, eta horretarako desgaitzea dakarren inolako lege-debekurik ez zaiola ezarri, sexuagatiko diskriminazioari dagozkionak ere kontuan hartuta, 4/2005 Legean,
- otsailaren 18koan, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoan, adierazitakoari jarraituz. Eskaeran aurkeztutako dokumentu eta datuak egiazkoak direla.
- Deialdian eskatutako baldintza guztiak betetzen direla.
- Markatu X batez dagokiona

#### VI.- Eskabide honekin batera aurkeztu beharreko dokumentuen zerrenda

- ❖ Eskatzailearen NANren fotokopia, edo haren identitate-datuak elektronikoki egiaztatzeko baimena.
- ❖ Eskatzailearen errolda-agiria, edo errolda-datuak elektronikoki egiaztatzeko baimena.
- ❖ Erakunde laguntzailearen ziurtagiria, ekintzaileei ideia berriak kudeatzen laguntzeko programan eskatzaileak parte hartzen duela egiaztatzen duena.

#### VII.- Identitate- eta errolda-datuak elektronikoki egiaztatzeko baimena

Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzuari nire identitate- eta errolda-datuak elektronikoki egiaztatzeko baimena ematen diot.

BAI       EZ

(baimenik ematen ez bada, NANren eta errolda-agiriaren kopia konpultsatuak aurkeztu beharko dira)

VIII.- Eskatzailearen sinadura

Tokiko ekintzailtza-proiektuen esparruan enpresa-ideia berrien sustatzaileak euskarritzeko laguntzen deialdi honetan sartzea eta dagokidan diru-laguntza ematea eskatzen dut.

.....(e)n, .....(e)ko .....(a)ren .....(e)an

Sinadura (izen-abizenak)